

itzulpena: Itxaro Borda



Maria Mercedes Marca!



**Munduko
Poesia
Kaierak**

Maria Merce Marçal

itzulpena: ITXARO BORDA

 **Susa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

- © Maria Merce Marçal
- © itzulpenarena: Itxaro Borda
- © edizio honena: Susa

2014ko martxoa

Munduko Poesia Kaiarak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Gazterik hil zen Maria Merce Marçal, XX. mendaren akaberarekin, berrogeita sei urte baino ez zituela. 1952an jaio zen Ivars d'Urgell-en, Lleidan, baina bizitzako zati handi batean lan egin eta bizi izan zen Bartzelonan. Poeta da batez ere ezaguna, baina beste hamaika kultur ekimenetako partaide eta sustatzaile izan zen. Llobres del Mall argitaletxearen sortzaileetako bat, Kataluniako PEN Club-aren bultzatzaile, eta beste. Feminismotik, emakume idazleen ahalduntze eta aintzakotzearen alde lan handia egin zuen orobat. Hainbat poema liburuz gain, nobela bat eman zuen argitara 1994. urtean, *La passió segons Renée Vivien (Pasioa Renée Vivien-en arabera)*, makina bat sari jaso zuena. Itzultzaile gisa ere lan nabarmena egin zuen, Colette, Marguerite Yourcenar eta, poesian, Anna Akhmatova eta Marina Tsvetaievaren lanak katalanera itzuliz.

XX. mendeko poesia katalanaren kanonean ia emakumezko bakarra dugu Marçal. Urrutira joan gabe, Gerardo Markuletak Literatura Unibertsala bildumarako itzulitako *Zenbait poeta katalan* antologia ederrean azaltzen zaizkigun bederatzi poetak gizonetzkoak dira. Horretaz landa, ordea, arestian aipatu

legez, Marçalek kontzientzia feminista -ezen ez femenino- zorrotzetik idazten duela da azpimarratzekoago. Neurri horretan, XX. mendearen hondarrean poesian ez ezik beste hainbat kultur eremutan jazotako identitatearen gaiaren balioztatze eta eztabaidatze gisa uler liteke baita ere bere poesia.

Bere aktibismo politikoak isla poetikoa du, nolabait, bere lanean. Nortasun feminista, lesbiana, abertzale eta marxista baten artikulatze berezi bat ikusten ahal da bere lanean. Identitate aski konplexu eta kontraesankorra, baiki, Kataluniako historiari eta, oro har, Europako historiari erreparatuz gero, ez baitira berez eta errazki uztartzen lau identitate horiek. Auzi horren haragiztatzea irakur daiteke, esaterako, bere poema sonatuenetako batean, *Dibisa*-n.

Ildo horretan, Marçalen poesia feminismoaren goiburu klasikoetako baten eredugarritzat har daiteke, ezin hobeki ikusten baita bere poemetan pertsonala den oro dela politiko. Dimentsio intimo nabaria dute ale ugari, baina dimentsio txiki horretan, luzezabal estuan eta bi gorputzen artean gertatzen denean, gizarteko eta giza-harremanen arteko auzi handiak azaltzen zaizkigu ezbaian: botere borroka, askatasuna, presio soziala, autoritarismoa, berdintasu-

na... Maitasunaren ideia-eraren birformulazte bat ere suma liteke. Ezagun da poesia izan dela amodioaren irudikatze literarioa era aski emankorrean gauzatu den eremua, baina Marçalen poemak, horietatik ugarri behinik behin, amodiozkoak izanagatik, itzuri egiten diete maitasunezko poema topikoei. “Maite zaitut / (...) Gorputzak eskatzen didalako / (...) Nahi dudalako” diote Marçalen lerro batzuk Joseba Sarrionandiaren “Inork agintzen ez didalako” poema gogorarazten digutenak bidenabar.

Bizitzaren gezak eta makurrak ere ez dira Marçalen poesiatik urruti. Oinazea eta norbere buruaren zatikatzea azaltzen zaizkigu usu, poemetako batean Silvia Plathen —ez alferrik— aipu bat lagun dutela. Deboila da Itxaro Bordaren itzulpenean behin baino gehiagotan irakurriko dugun terminoa. Kasu, bada, poemok eragin dezaketen deboilarekin.

BEÑAT SARASOLA

Dibisa

Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana,
Klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa.

Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra.

Carpe diem

Ilargiak gero gauaren lotura bat hautsi zuen eta eguna harrapatu, fruitua bailitzan. Urtu zitzaigun haragia azpi tartean —erran zenidan ekiaren maldan hogeita lau egiten zuela. Erroek xurgatu zuten gauza guztien bihotza laino bipiatu eta oskolekiko hedoiien azpian. Godaletan betea zen: dadoak hutsean jauzika.

Avui t'he cercat, amic

Bilatu zaitut gaur, adiskide, ilunabarrean;
hostoetan nahastu eta galdu naiz
haltzen xendratxoetan.

Itzal eta bertsoz indartsu, zare bat besoan
eta zertxobait bazterrean, sorginak.

Zure urratsen hotsa ekarri dit ur berde ditaretara
batek;
ahotsaren erroa zurkaiztu dizu argi beltz errauts
batek.

Eta oldar bakoitzean zu zara, eta nik lainozko
zamari bat zaldizkatzen nuen:
eta sostengu bakoitzean ilargi bat, eta zuk
zaldizkatzen duzu eguzkia.

Gustatzen zait, gero, hiritarrez janztea
eta zure larruan oraina eta biharra idatziko ditut.

Guztia ele oihan bat zen
eta arku erraldoietan birlatu elea zen dena.

Pinuetan dantzatzen zuten eta ezkurak ortzadar
ziren
horma belarren haranerako bidea neurtzen
genuenean.

Hogei bala

*Layret-i **

Hogei bala ziren, hogei bala
ai, nola trenkatu zuten gaua!

Azaroaren hogeita hamarra,
ordu buru-ebakien gaua!

Hogei bala ziren, hogei bala!

Azaroaren hogeita hamarra,
goiz albarik gabeko gaua!

Ai, nola hiltzen zen gaua!

Erori zen herriaren makila!
Epaitu zuten airearen hegala!

Hogei bala ziren, hogei bala!

Zorigaitz oroitzen ez denari,
hogei zur-zotz haren papoan!

Ai, nola odolusten zen gaua!

** 1920ko azaroaren 20ean CNTko sindikalisten abokatua zen Francisco Layret tirokatu zuten poliziaren pistoleroek eta sindikatu libreko kideek.*

Errauts oihal

*le cortège des femmes long
comme un jour sans pain*

Apollinaire

Errauts zapia, erratza, lumazko jatsak,
gandorila, eskuila, karamila, oihal leuna,
ebaki xaboia, trapua, lixiba, hondarra,
xaboi errautsa, anilautsa, netola, pertza.

Bainera, ontzia, eta ulu zapagailuak,
xukapara, zakarren pala tolesgarria,
tanga eta hautsa, zitroin-gatza, xukadera.

Gudaria borroka zelairantz doa.

Company

Lagunok, bizitza ausiki dezagun!
Amodioak ezpainak arrabiarazi bekizkigu:
Odolezko ituna izenpetuko dugu
ilargi betea sutuko denean!

Odolezko ituna izenpetuko dugu,
soka harilkatuz atxikitzen gaituen
zuhurtziatik aurreztu gaitzakeen
arrabiaren zimarku bat.

Lagunok, bizitza ausiki dezagun
ilargi gorritsuaren azpian.

Dibisa

Lau egur puskatan zero zati bat
hersten dut eta horman eskegitzen.

Izen bat badut nik
eta kreaz idazten dut beherean.

Bihurgune

*Gizon bako emakumea bizikletarik
gabeko arraina bezalakoa da.*

Ezezaguna

I

Gaur, abenduak hogeita bat,
balkoira atera naiz:
jada jabaltzen zihoan euri baten azpian
ikusi ditut ontziak, eltzeak, kontserba
kaxak, agabe ziztadunez landatuak,
belar larrutzailez, begoniaz, geranio eta kaktusez,
erreginaren zaldunez
eta etxeko loriosez.
Eta jasmina, hiltzen banaiz, ez naiz hila.

Bazen egun asko ez nintzela balkoira jalgi
amodioaren eta beste gauzen atzetik lasterka.

III

Bizikletarik gabeko arrainaren pare
ene bihotza uhin artean aurkitzen dut.
Ardo biziki eztian ilargia hiltzen den
lekuraino altxatzen dut kaliza.

Bakartasunez horditu naiz.

VI

Lehenik belarriak zulatuko dizkidate eta
han hara huntz-pettentak txertatuko.
Ez hartu oihan hau harizti batentzat.

VII

Zurezko begiak ditut.
Zizare bat negarrez ari da noizbehinka.

IX

Orduek nire larru
ganean dantzatzen dute
eta zapatarik gabeko
urrats txikien
bakartasuna dator...

XII

Tristezia bultzatuko dut selauru goretarik
begi bako neskatoa eta euritako hautsiarekin,
haur-kaiera garaitua, eltxo-sare zaharra.
Eta harmailak jaitsiko ditut amaraun eroek
ehuniko bozkario jantzitan.

Amodio bihikatua badate sakela zoletan.

XIII

Minaren sorgin, nire erorketa bakartian,
huntza argitik ihes doan liburua hetsi dut.
Ahanztearen zirrikitutik sortzen da odol belarra
eta jasmina ilargite honen bihurtzetik.

Isilkako urratsekin, norabide ilunetik,
armiarma etxeko-anderetza da berriz.
Amodio hautsak atea seinalatzen dit.
Baina ilargia temaz dabilkit ingurua

utz dezadan —ikusten?, zuhaitz zaurituak
bere larru pean datxika zure bizi-araua—,
Haize bako aintziraren zolan hitzartzen nau.

Gauaren apaletara itzultzen dut miraila
eta aurpegia, orratzez urratua, ezabatzen.
Hostoen tristura zartatzen zait behatzetan.

Dibisa

Gatz irekia zaurian, hetsi ez bedi!
Ainguraraino hats gabetu nadila, urteek
garaitua, eta trumoiak, eta uso belarrak.
Nostalgiaren putzu bakarrak nahastu ez nazala.

Huntzostoak belatan! Gatz bizia niniketan
haraindiak ikusteko, berdetasun eromenean
bat-batean irekiriko desertuaren antzera!
Itsas zundak izarrei ere jarraitu dakiela!

Gatz irekia eta, gainean, zero zabala!
Uhinak eskastean mihia, sudurra, belarriak
gazitzen dituzten seinale gaziak utzi biezazkit.

Gatz irekia zaurian: hetsi ez bedi!
Guztia mugitzen doan zintzur ilargikoitik zoritxar
Ordu hauetan nahasten nauen gatza.

[gauak bere hagina]

Gauak bere hagina
iltzatu eta
lepoa odolez daukat.

Harrien azpian
eskorpioia
dantza eta dantza.

Euriak, luze,
ganbararainoko
bidea egiten du.

Desiraren zurubi
ilunak
eskudelik ez du.

Bide egiteko kanta

Marinarentzat

Ene ontzira igo nahi al duzu?

—Brioleta liliz mukuru dabil!

goazen urrun, hemen uzten
dugunaz nostalgiarik gabe.

Goazen urrun nostalgiarik gabe

—eta bi garate, hiru garate.

Etorri, etor zaitez gure ontzira,
belak zahar, zerua zabal.

Beso bederak arrauna baduke

—Eta lau garate, bost garate!—

gure begiek, izar ibiltariak,
mugak ahantziko dituzte arras.

Martxoko haizeekin abia gaitezen

eta bihotz inarrosien hedoeekin.

Bai, hogeit garate, berrogei garate,
ilargia banderatzat ukanen dugula.

Atzoko sorginak, gaurko sorginak
itsas betean aurkituko dugu elkar.
Bizitzak, dantza baratzekoi baten
antzera denetan distiratuko du.

Uhin gaziaren larruan
bostehun garate, mila garate.
Arrastirian galduko ditugu kontuak.
Elkarrekin jabetuko gara gauaz.

Uraren erromeria

I

Zarrailu zulotik sartzen naiz huntz hostoarekin.
Zein haizek bulkatu nau oihan hartarik atera?
Ez dago seinale izpirik toki hortako arboletan.
Desirak erantzunik gabeko zerua du ikertzen.

Eurizko oihaletxe bat, gonbita berriarentzat!
Belarrean barreiatuak, ardo honen auzoetan,
jolasaren gatza, amodioaren piperra,
eta zure soina eta nire soina, jaiaren hazkurri.

Nork jarri zuen mahaia estalki ttakatuekin?
Zein ekiren otsailak hogeita hamar? Zein lur?
Kartetako gaztelutik zein itsas erdi da ageri?

Ilunpeak estaltzen zuen iragarpenik ilunena.
Noranahi noa, edonondik naiz itzultzen,
poeten zergatian exiliatua maite zaitudala.

VIII

Harrulia aiduru duzu sasi-hiri horren muga.
Min egiten dio pozoi-suizidioz bete orratzak.
Suaz setiatua —herioaren eztei dantzaldia—
dorre errearen hondarretik urruntzen da.

Jada hostoak usteltzen doaz. Udazken deboila
bermatu oihan gorakoian, zauriaren hegian.
Zomorroak gordetzen dira izarren labirintoan
suntsiketari jazarriz, bizi berri bat ekarriz.

Harrulia aiduru duzu eta uhin beltzatua.
Utzi atea itsutzen duten armiarma-sareak!
Ez zaitez ukatua sendi bizitza den kloskoan.

Ebaki lotzen zaituen soka! Eta gatzaren bidez,
besarka nazazu arauak ezagutzen ez dituen ura
bezala, bridarik gabeko ibai-erroari josirik.

IX

Markak ahanzi dituen itsuaren antzera maite nauzu.
Errutinari lotzen zaizkion korapilotik ihesi doaz oinak.
Zure behatzak, biziak, igotzen dira hostoen ukimenaz.
Sagardi peza dagoenera eramaten zaitu sudurrak.

Zure gorputza laguna dut eta leihoak irekitzen dizkit.
Zein izarralde zurbilek ditu burdin-zerrailuak eroaten
eta zintzurretik hartzen, ur zorrotzaren ahotsekin,
desiraren arku tiratuaren azpiko ontzitxo?

Nire arbolen itzalek, sukartsu, errozko aterpe bat
bezala, sapaz, eta amodio berdez inguratzen zaituzte.
Senditzen al duzu belarria ilargiaren miauka hesten
soilik begiek distiratu eta soa konjuratu artean?

Han nehor ez dago zain eta ekiaren pare iluntzearen
putzu itsura lehiatzen dira su honen adreiluak.

XI

Dantza ala borroka? Gaur egun, gerra dantza!
Ez al duzu ikusten odolez gorritu begiekiko ilargia?
Gauaren azkonek eraso dute lokatza.
Bulun goaz, ero, itsasotik zerrako oihanera.

Eta euri sukartsuen lauhazka itotzen den
karrika handiko urmaelaren ardatz ilunak gara.
Bat-batean atsegin homizidak betetzen gaitu:
arku gaitzeko indio, hautsa eta zaldia probatu dugu.

Preso egin nauzu. Labanezko errotarekin
larrua eta bihotzaren ahoak tatuatzen dizkidazu.
Altxorraren harpea, ausart, bilatu dudalako
iragarpen gordeen pean amodioa bazkatu dut.

Gaztigatzen nauzu, jelos, eta uzten didazun plazerak
are urrunago narama, aduana gabeko mortuan zehar.

XIX

Ai! Agrada zait zure burua eta agrada zure uzkia
—desberdinduak diren birazkako bi erdi—.
Nire mingainak, karakol isil baten antzera,
arbola osoan darrai, astiro, errotik kaskoraino.

Maitasun itzulkariaz, etxe hetsi bat bezala,
eta antenen puntan beldur pixka batekin,
azalean lerrari noa eta korapilo bakoitza maite dut,
hosto bakoitza, eta noiztenka negar dagien harra.

Ai! Zure uzkia agrada zait eta agrada zait zure burua.
Ekiak dailu ziurrez suntsituko dituen izkinak lotzen
ditu tua distiratsuzko bide-labirinto batek.

Mundua-birlaren ingurune anitza da
zure gorputza, lurrezko eromen baten pare,
gaur, nire aho ibiltariaren nostalgiari eskainia.

XXI

Artagairik gabe, badakit, buru eta abururik gabe
maite zaitut. Ez da oin bakarrik ez eta buztanik,
denak baitoaz zuzenki uraren festaburura:
Aiztoa eta oihana, ardoa eta odola eta ogia eta ahoa.

Ubidea eta uholdea, arrosa eta aitzurrak,
mihiseak eta ohea, iturria eta egarri leinurua.
Dorre eroria eta zeruan iruten den adarra.
Hondar hilaren gainean, erretzen duen izotza.

Bururik eta ezer gabe, abururik eta artagairik gabe,
nire gorputzaz ezitia egiten duten erle txikiak,
arbola arteko leze iluna, hatza galtzen duen
amodioa.

Uholdea eta iturria, ahoa, ardoa eta egarria.
Hondarra, odola eta aiztoa, oihana eta izotza
eta urezko suhaka hau eragin duen sua.

Gatz irekia

I

*Tania Fraylincki,
Ama eta soltera*

Eta Josep Ferreri

Lau erreinuak deitzen ditut, eta gauaren urdina,
urrats eta uhin gorakari diren errauts neureak
neurtzean baliagarri zaizkizun nire oin zola,
aztalondo eta zainak.

Dado aurtikiak deitzen ditut eta eztitasunaren
putzuko sugeaz musutzen zaitut. Mahai-inguruan,
oldar, izendatu zaituzten haizeak haiatzen ditut,
orduaren kridari.

Galernaren koralak loratu daitezela zuretzat,
gonbidatuen gatza, goiztiriaren irina.
Urak bozkarioaren dabantala estrena beza
zure ongi-hartzeko!

Zuretzat inperiorik gabeko nazioa izan nahi dut.
Karta seinalatuen jokoa jotzen duen azotea.
Eskemen diga atabikoa suntsitzen duen arresta
gabeko uholdea.

Ordre iragarleak mehatzen dituen ebakiaren aurka
ibaien burbuila anitza, belarren itsasaldia,
hegats zoratuaren aurka, izuak zizelkaturiko
duke banderaduna.

Gauzen eta sendituaren txirikorda,
bakartasunaren eta desiraren errota
iratzeen berdetasun dantzarian korapilatuak
atseden gabe.

Eta orain barreiatu-rik esnea naiz, igalia,
zekalea, zutaz gizon-ek leihorik gabeko
urguiluaz aberria deitzen duten betetasun
bizia egiteko.

II

Lau erreinuak deitzen ditut eta mentura eta sapa
berriaren astunaz bihikatzen den ilargi betea.
Erdi su, erdi itsaso, huntzaren hosto goratiak
senditzen ditut.

Eguzkiaren indar samurrari ireki zaitez!
Erro baten antzera, jatorrien txanpona,
Hurrupa iezadazu, goseti, bizitzaren jainko
egiten gaituen

joaldi telurikoa eta olio sainduz dezagun izenpe,
borrokaren onkailuak eta bestaren xotiltasuna...
Hurrupa iezadazu askatasuna, nihauren aurka
baldin bada ere!

(Amodioak ehaindu arkuak bezala borobiltzen
doakit sabela: ez da zedarri debekaturik!
Geziak geroaren sagarra ukitzen du
eta zu zara zuhaitza.)

Portu bako potaren kanta

Urak jasminak ostu dizkio
gau beilegiaren bihotzari.
Penaren terraza gorenetan
gatzezko bokata lats zuria.
Zu, ni eta portu bako pota
txirikorda beltzaren antzera.

Zu, ni eta portu bako pota
banderarik gabeko ontzian.
Belea, amiltze sakonean,
itsas txoriak barra luzean.
Maitasun ikatza begietan
txirikorda beltzaren antzera.

Maitasun ikatza begietan
eta begiak bete tristuraz.
Bai eta tristura itsasoan,
itsasoa ilargi itsuan.
Eta ilargia haizeen men
txirikorda beltzaren antzera.

[mila bederatziehun eta
laurogeiko martxoaren seian]

Mila bederatziehun eta laurogeiko martxoaren seian
elkarrekin, eta pentsatu gabe, ziurtasun ezaren

eltxo,

su hartu genuen, hedoien sagardian.

Fruta bizia belarrera erori zen.

Itsas ahoa, bat-batean, lumaz erein zitzaidan.

Uhinek gorakadaren eraso irentsi zuten

eta ondare muinoaren bularrak hantu ziren.

Fruta guztia nire gonaraino etorri zen.

Begira nola altxatu naizen kimeren baratzean.

Uzta natza, selauru eta nasaitasunik gabe,

eta gaueko eki batek matelak koloratu dizkit.

Eta zuk —zein urrun!— festa iragarpenekiko

Nahaspiloa hazten den bideraino doazen

Hatzak eta hostoak ezabatzen dituzu.

[nolako duna nire sabela, itsasoaren zedarria!]

Nolako duna nire sabela, itsasoaren zedarria!
Begira, gurutzune zabalean zure izena urtzen da.
Horrekin haizeen dorreari lepokoa egin niezaioke,
ai are gehiago ai
baina ordrearen zaldiek mihia lehertzen didate.

Nolako uhina nire sabela, mami itsastarrean zure
izena idazten duten ontzi handiz iraulia!
Zelan argituko lukeen gatzezko golde eta koralaz
ai are gehiago ai
Baina ordrearen zaldiek mihia lehertzen didate.

Nolako branka nire sabela, maitasun mitxoletekin!
Antxeta sorta bat bezala masta nagusiaren puntan,
zure seinalea liteke izar gorakoien konjurazioa.
ai are gehiago ai
Baina ordrearen aldiek mihia lehertzen didate.

Maite zaitut zeren eta

Vinguen els rems, que so d'estirp romeva!

J. V. Foix

Maite zaitut zeren eta. Gorputzak eskatzen didalako.
Manu eta azantz gabe uhinetik etorri zarelako.
Oihaneko sasitzarrak berde zoro batez etxola
Erramutzen dizulako, zerrailu eta barroterik gabe.

Nahi dudalako. Eromenaren erroak xurga nazala.
Segatua, amodioak duelako ene ohea bihikatu.
Badiaren haserrea eta gatza eragiten duten
Eskorpioiaren antsiak, iltzatuak, dakarzkidalako.

Ahulegia naizelako itsura nitaz jabetzen doan
marea biziaren aurkako barrakiaren eraikitzeko.
Indartsuegia naizelako hondamendiaren xotxek,
ni gabe izenpetu duten destinoari makurtzeko.

Urik sakonenak bakerik eta meniarik nahi ez eta
jatorriz beilaria naizela goraki oihutzen duelako.

Decapitacio-80

Homenatge a Pere Quart *

Guztiaz biluztu naiz
zure itxoiteko.
Etorkizuneko alfabetoaz
eta oskolaz.
Tintak isuri ditut
eta, engainu gabeko
keinu batez,
borobilean ebaki dut
eskema guztiaren burua.

** Pere Quart (1899-1986). Katalanezko poeta eta antzerkigile nagusietarik bat da. Lluís Llachek musikatu zituen haren poesia zenbait Corrandes d'exili kasu. Les decapitacions (1934) Pere Quarten lehen olerki bildumaren izenburua da, Maria Mercé Marçalek Heura bere alabaren sortzearen urte zenbakia eransten diola.*

* * *

Zara eta ez zara. Eta besarkatzen zaitut, errenditua.
Maite zaitut urezko gorputz hori maite dudan
moduan,
hausturarik gabeko zure kristalari moldatzen dela,
lur azpiko zintzur ahotsez ikaratzen doala.
Aintzirak zuretzat alde bikoitzekiko mirailak
nonahi barreiatzen ditu: ni naiz eta beste bat.
Eta zu ni zara, sakonenean irekiriko
Desira txikitxo, ekiak gazuraren larrua edaten
duen eran, huntzostoak ilunpeak igotzen dituen
bezala, nigan hain ezteki bizitzen den parasitua.
Tapaki zigilatua, sekretuaren antzera,
nire arrazoian ustekabeko tunelak zulatzen dituzu
zeinu-uharrez zabaltzen den ene bihotzarentzat.
Oraindik bost hilabete!, eta urte askotarako.

* * *

Sekulan ez da ohaide bakar bat ere
ferekatu didazun muturrera heltzen ausartu.
Barnetik kanpora, maite, uhinak senditzen ditut
eta hondartza egiten naiz, duna eta harkaitz.

Biharraz oroitzen naiz, ondareaz, arriskuaz
piztu eskuez, nire gonbidatua egin zintuen
atzoko itzalaren miraila sutsuaz,
zuga bizi naiz, zure zereginetan.

Nigan bizi zara, arruntasun hurbil batean
—gerraren aurpegia gatzarekin ezabatzen
duten lurraren ahotsei adi dagoen ura—

Entzuten duzu ekaitza altxatzen, bihotz prestua,
urguilua nitarik soltetzen den kai urruna?
Zuga handituz, itsasoa eta biok bat gara.

Udaburu

(1982)

Zure sexua eta nirea bi aho dira.
Senti ezazu nola dabilzan ihintz-musuka goroldioan!
Nola ausikitzen duten zirimola biziakiko argi-ilunetan!
Nola mintzo diren zintzur irekizko sokorriekin!
Nola dantzatzen duten mihitxo askeek!
Pasaietako nolako sekretuak! Gure sexuak,

maitea, bi aho dira. Eta bi sexuek
ahoen ordeztuz jotzen digute orain.
Beldurra gordez, goroldioaren dantza
Hezten duen bridaren oihartzunean urtuak,
alderik alde zabalik daukagu hondartza:
hagun biziaren desira dugu akuilatzen;

Zure sexua eta nire aho bizia,
aurtikiak, bi sexu bailiran txirikordatuak,
fruta zabalduen isuriak nahasten dituzte
eta eromen betean ahoak dira bihurtzen.
Ahoak, orduak mentura hartzen eta brida
galtzen duen goroldio-urmaeleko koralak.

Orduak eta menturak brida gal gunean gaude,
zure sexua eta nire ahoa, goroldioaren
zirrikituetarik marea bizia zaldizkatuz, belarik gabe
lerratzen direnean: sexuak
aurpegiaren erdian eta hanka artean, ahoak.
Gatz irekietako oldartze da oro.

Itsas gazteluek, festan, gau irekian
zeinuak ezabatzen dituzte eta brida laxatzen diete
zeharo ahoen eromenari. Edozein hosto lehor
berpizten da, sexuetan pindar beltza ematen
eta goroldio sumihiak karmintzen dituen
eguzkiaren argitasunarekin.

Goroldio jauzi batez erre dadila guztia
eta oratu bekigu gure sapa irekia!
Gure sexuek udaburua ospa bezate,
bridak oro euriz alda ditzala bihotzak!
Urtaro bizietan zartatu daitezela eguterak!
Milaka oihanetan loratu bitez ahoak!

Ahoek egin bezate goroldioak onar
Dezan gure sexuen miraila, bridarik gabe,
Bizirik, larru irekiaren antzera!

Gatzaren besta

Zu eta ni sua zurkaizten duen airea gara.
Lurra zorrozten duen ur zabaldua gara.
Airean zilegi den lur lodia gara.
Erro berriekin ura biltzen duen sua gara.
Zu eta ni, maitea, gatzaren bestarako
metaturiko mundu osoa gara gaur.

Ogiak eta gatzak beren lekua aurkitu dute
eta beldurrak ez gaitu suhartzetik urruntzen.
Mundu osoa errezibitzen dugu, berme gisa:
gure alorretik at, ez dago lur mazelarik,
airean barreiatu orlegi izpirik ez,
uraren argian urtu urdin izpirik ez.

Uraren ilunean galdu gau sortarik ez,
gatzaren pean itsatsi itsas lauhazkarik ere ez.
Desiraren urguiluak airearen nahiaren plazera dagi
eta belarrak eta sua zurbiltzen ditu.
Maitale, lur gainean ohea para dezagun eta
munduko oihan hauetaz ganbara egin.

Mundu honetakoak gara, baina uraren norantzaz
asma daitekeen mundua luzatzen dugu.
Arbolak landatzen ditugu lurra bailiran
eta gatzezko lore biziak lotzen zaizkigu.
Erretzen dira eta orduan sua indar eztatzen
eta aire hatsez itxuraldatzen da.

Desiraren ahotsek airea biribilkatzen dute eta
munduan barna hamahiru haize haiatzen dituzte.
Suaren lumekin besarkatzen gara
eta uhina nahasten dugu urezkoak bagina.
Leiho berriak lurrari irekitzen dizkion
gatzezko bihotza jotzen dabilkigu ahoan.

Amodioa egiten dugunean lurra biltzen zaigu.
Uraren abarrak hazten dira, gorakoi.
Gatzaren pena kristaltzen doa
eta huntzostoaren pozak hartzen du mundua.
Ez da xederik uraren sexuan
ez eta tiraniarik suaren itsasargian:

Lurraren erdigunean gaude suarekin.
urarekin sasi gara eta hatsanka airearekin.
Mundua itzulikarazten dugu gatzaren aroan.

Exilioaren lehorrean

Maitea, izpiritu gaiztoak urruntzeko, exilioko
lehorrean, menda eta musuez sute dagit
eta desiraren belarminaz
tatuatu dut bihotzaren eta ahobiaren sarea,
Eta hazten nauen itzala gatibatzeko
Gordeleku bihurtzen naiz.

Maitea, gaur egarriak husten eta hazten nau.
Lehorreratzen nauten ibaiak marrazten ditu keak
eta, harri artean, mendaren
dolorearen, usainaren, gustuaren gatibu naizela,
ahobia sutzen didazu erregai sekretuekin
—ausentzia eta belarmin.

Maitea, belarmin zurbilaz harrotzen doa zerua.
Bestaren purruskak hazkurria hesten du jada
ahobiko odolarekin.
Eta, espero gabetarik, gauaren beste lehorrean
espero zaitut, izarrez mozkor, berde eta menda,
eta nire hatsaren gatibu.

Maitea, ur edo ontzizko zein xederek gatibu
Naukate, legez kontra, ilargia nire oihanetik galtzen
nabaritzen dudala eta mendak hosto
Eskasak ekira idokitzen ditu, eta dolua ez da hazten.
Zein lakiok ditu lertxun saldoak deitzen, lehor gabe,
eta frutak, ahobirik gabe?

Maitea, zein jaidura txarrek bridatzen ote dit
ahobia,
eta lainozko kaiolan eta pozoia urtzen eta arbolak
gatibatzen ditu? Zein lehorrek
dakar handikeri kiratsa belarminezko mortura?
Zein plazerek, ehortziak ja, apaintzen eta hazten
zaitu,
zu, mendaren alegiazko izatea?

Maitea, lerro hauek orok musuak eta menda
sutu dituzte, zu ez erretzeko, ahobi agerrindea.
Eta hazten duen txirikorda
hondamendian errotzen da eta lepoan, balizko
itzuleraz, lehorra itotzen duen belarmin eta
gatzeko itsasoa gatibu dauka.

Maitea, ihesi noa: lehorra, mendaren gezurrak,
Ahobia gorritzen, gatibatzen eta hazten nauen
Belarminak bihurtzen dira.

Dibisa

Haragia, hitzik gabe,
Nire aitzinean eta nigan.

Eta nik liburu guztiak irakurriak nituela.

Erditu zaitut

Bizia minez sortu zaitut
atseginez erditu zaitut.
Hitz bakoitzaren errateko
uztaia luzatu behar dut.
Liburua zuri dago
eta atzean utzi ditudan
bide ikusezinak
jan ditut jarraian
Denboraren karakolak.
Ez jakin arren badakit.
Ez dizu ebaslearen pare,
gauetz, gordeka,
giltza itsas hondora
aurtiki eta nire oihana
erretzen zuen suak
bizia eman.
Ez, niaren sugea da
Oldartu hain isil,
zirimola artean,
eta ilunpe itsu, su, itsaso,
haize, lur eta huntzostozko

zerrailu guztiak giltzarik gabe
zabaldtu ditu.

Bizia minez sortu dizut,
odola haustear daukan
geziaren
atseginez erditu zaitut.

[huntzosto]

Car si près que tu sois l'air circule entre nous.

M. Desbordes-Valmore

Huntzosto,

martxoko garaipen,

ahizpa

Arrotza, bat-batean hor zarena:

nire mugak odoleraino bulkatzen

dituen zure hizkuntza barbaro

Eta bortitza nola asmatu, iheserako

hankarik ere uzten ez didan erronka!

Zein begi eta eskuk —ez nireek—

jakingo dute zure ikusten, ukimen soilaz,

edertasun haragitua bezala, nire sabelean

galderarik gabe zabaldua?

Soilik, desira, gorputza barruan,

zure balizko belarriak ez ditzaket uka

ahotsa ehizatzen zizutenean hosto

gorakoien murmurioaren itzala

zinenean, oihanaren bestaldeko ke seinalea,

atabal soinua, irekia, urruna, zure mezuaren

alfabeto berdea idazten nuen
moko zuridun urtxoz, presazko erantzunik
eskatzen ez zuen poema bizia,
dakidala ez dakidan orain honen antzera.
Hala eta guztiz garaipena deitzen zaitut
martxoko huntzosto, ahizpa, arrotza.

[zure mina]

Zure mina:

nire errua, ispiluan
—ispilua, begiak itsutzen
dizkigun erronka, korapiloak,
nire minaren minean iltzatu
abaila jaurtiak:
zure errua ispiluan.

Zure errua:

nire mina ispiluan
—ispilua, ondarearen muga
galdezkatzen den mortua,
balizko izarrez itsu,
tematsua eta fidela, nire errua:
zure mina, ispiluan.

[badakit zu zarela]

badakit zu zarela eta ez zarela zu badakit
zauri honetarik xurgatzen dudan odola.

Oroitzen? Beldurrez zurbildu mihiseak
koloratzen zituen udaberriko oihu ausart
batek eta izarrek hilerokoak zituzten:
lixiba bederak ez luke hatza garbituko.

Oroitzen zara, urrun, barreiatze eroaz,
odolustua, oztopo gabea, zure-nire
sexuen sutzeaz, zeta eta onix artean?

—malenkonia menderaezinen engainua:
ordulari bizia, seinale bako oren hautsien
itzal argia, ilargikoi eta besarkada?

Eta orain ez zarela dakidala, itxura gabe,
Odola bihurtzen da, itxura gabe, zauri.

[ahizpa zaitudala]

Ahizpa zaitudala dakidalako arrotza deitu zaitzaket,
hautsezinezko odolezko itun batez
zuri lotzen nauen gerra honetan
tregoarik gabe azaldua, tregoarik gabe abolitua.
Arrotza zaitudala dakidalako ahizpa deitu zaitzaket.

Alor hetsiko epika

Labirinto hutsaren minean,
hautsezko erakustetxea,
zazpi hil-askek hetsi dute
zure izenaren hezurtea,
maitea. Eraiki ditut
oraino, zazpi harresi,
zazpi ibaiez setiatu
hiriaren inguruan.
Estepako kalamuak
janzten gaitu, beldur
baten pare hedatu
guda arkua bezain zabal.
Sutik jalgi dut erre ez den
balategia. Eta, haratago,
aireak zazpi zerrailuz
lur mugak hesten ditu.

Ebaslea bezala bortxatu
dut ortzaiza. Su sakratua
konjuratu dut itsuki.
Eta zazpi bider zazpi
aldiz barne-mortuaren
pasaiak zeharkatzeko
izua garaitu dut. Ubiderik
gabe ibaiak trabeskatu ditut.
Dadoz dado, harrizko zazpi
Borobilen suntsitzeak
ez nau irabazle, heriotzaren
auzokide egin.
Zedarri gabeko bideetan
zazpi bide galdu ditut,
zazpi bider zazpitan salbatu
naiz, imana bainintza.

Hondarrean zazpi atepak
apurtu ditut eta zazpi
zorro hetsien urguilua,
zure laztantzeko. Inoiz.
Eta tinkatzen zintudala
uste nuenean, nire begien,

nire hatzen, umezurztegian
gatibatu nire odolaren gatza,
ukigabea, hingatze iluneko
denboran errotik sartua,
bihotz soil bat aurkitu
nuen, nirea, baltsamatua.

Artemisatik dianara

*Betazalen azpitik irekitzen
zaizkidan begi begiak*
Adrienne Rich

Ez diet ez jainkoei ez eta edozein aztiri
beste begirik eskatzen, betazal berrien azpian,
zuri begiratzeko eta zuk ikus nazazun: zu zara
eta ni, deitzen eta desafiatzen ditudanak.
Egarriaren eta uraren putzuaren ikertzeko
beste begiak, gatza galdezka eta
irakurtzen ikas dezaten mirailaren alfabeto
bizia, ez dezifratua, erranahiz hetsia.
Itsasoa zabalarazten duten beste begiak.

Begiei bestelako hitzak eskatzen dizkiet
guhauren errateko, zaharrak suntsitu ditugunean
eta puskak barreiatuak ahanztearen arteketan:
Hain soilik altxagarri, ongarri lurrarentzat.
Gure eskuekin biltzea beharrezkoa dateke.
—Espazioa hantarazten duten hitz berriak.

Hitzei bideak eskatzen dizkiet
hatz berriak erakuts diezazkiguten.
Antzinako liluren muturreko berinak
karminez koloreztatzen duten beste ezpainak.
Esku berriak, mintzaira berria, zentzu berriak.
Odolez odol urratutako bide berriak.

Bide berriei, berri, biluz, bero-beroa
dabilkien beste odol bat eskatzen diet.
Oilo-zuloak eta mugak bortxa ditzala, eraso
ditzala pleguak eta inguruak, zerrailuaz
haratago eraman gaitzan, destino eta jainkorik
gabeko beste festaren egutegia tintatuz.
Zain berrietako odol berria.

Odolari da begi berriak eskatzen dizkiodana.

* * *

Zure ausentzia baizik ez
naiz, itzalaren eskuetan
odolusten zatzaizkidan
fantasma zurbila
—nire eskuak odoletan.

Urratsa berresten dizun
itzal gabeko itzala:
soilik ni, zakurtxo prestu
eta fidela, jada ezabatu
hatzari darraiona.

* * *

Obeditzen zintuen alaba
urkatu eta oraino
ikara ehortzi zuen
honek ez daki
muruaz haratago,
zureari heziki uztartzen
zaion iluntasun klaskaria
itotzen. Eta honezkero
nire ordezt mintzo da.
Naizenez ere ez dakien
honen isiltasuna
uraren gainean dago
geldirik.

Su-oldeak gorri bitza
Ordu mutua eta iradoki

mintzoa eta bideak. Eguna
sortu bedi, biluz, gesaltzetik.

* * *

Aita-mirotz, zeru hondotik miratzen eta
zure izeneko erreinuan hitzartzen nauzuna,
zeruan bezala lurrean ere dagien
zure nahiak hormatzen nau.

Ene eguneroko odola
zutaz haratago isurtzen da gaurko egunean
baina ez dakit kulpa zaharretarik libratzen
eta zordun itsuenen ispiluan miresten naiz.
Eta nire minaren itzalean
zure pertsegitzeko tentazioak naroa.

* * *

Emazte orok faxista bat adoratzten du.

Sylvia Plath.

Faxista bat adoratzten zuen —edo duen
nork daki!— nire zati hori
zurekin datza, zurekin alha.

Hilobiak ez du izutzen. Erreinurik ilunenari
betidanikako deia,
zurekin hiltzen eta zutaz bizi da.

Eskaintza ikaratia, zure atzetik ibiltzen
baizik ez daki eta zure gaitzari
lotzen portu ziurra bailitzan.

Medusa hezurutsa, nitarik geratzen
dena zu gabe, zutarik urrun
berrosatzeko borrokatzen da.

Labana dudari. Nor dabil nitarik kanpo?
Nola pentsatuko zaitut
ni zu ez banintz bezala?

* * *

Zutaz haragiments, ez dakit nola zaitzakedan irents.
Ene haragiaren haragi egin zaitut, jan zaitut
eta aurtiki dut
zure beldur ustela, hezurak zakurrei bezala
—zure heriotza doluz orroatzen duten
zakur hormatu horiek.

Ez dakit nola zaitzakedan irents, ez dakit
nola zaitzakedan maita orain heriotzak
zutaz hitz egitera uzten naularik.

Amatasuna

A l'H

Ez zen hasieratik txanpon erraza izan
zure irria. Zein olagarrok
bahitzen zizun hatsa sehaskan?
Gerrak, ongi dakit, ez dira alegerak.
Eta menturaz ez dut jakin, zure begientzat
inoren lurrean baratze irekirik landatzen...
Tregoarik ez, urrikirik ez,
mapa ezagunik ez, aurpegiekiko etsairik ere ez.
Eta zuk gerra jaten duzu,
ene ogian galdua,
ene hezurretan urtua
eta zureganako amodioan
hormatzen doan odolean
gesaldua.

* * *

Paradisua eta infernua elkarri darraizkio.
Eta sehaska eta hobia, eta hitzak
eta gorputza: sorterrria, exilio.

* * *

Memoria galdu eta ahantzirik, hiltzailea
bere krimenaren lekura itzultzen den bezala,
eta itzalean hilik uste zuena aurkitzen du,
zergatik jakin gabe esklabo egiten zaio,
zakur bilakatzen da, etxea, heriotzaren
eta salbamenaren saria ostuko liokeen
ebasle ausentearen aurka gerizatzen du,
horrela nintzen ni amodioaren lekura itzuli.

* * *

Zure hitzen itzulia egiteari
ekiten diot goseti,
hartzen diet mamia eta azala
eta hortzak pizten dizkidan ausikia.

Nire hitzen ausikian
zure gogoan igali irekitzen zait
eta pulpa urtzen, haragitik at.

* * *

nire gorputz exiliatu
eta mutuaz maite zaitut.
Zein bide galdutik
Itzulera, hitza?

* * *

Ez dakit zure maitatzen sorbalda
hausten didan itzal zamarik gabe
—galtzerik lizunenak bezala
sorturiko kantari argiz kontra.

Ez dakit zure maitatzen pisurik gabe,
itzala eta ontzia astuntzen dituen pisu hila
—eromenaren hegal debaldea bezala
amets antsiatsuari legez kontra.

Ez dakit zure maitatzen heriorik gabe:

amodioak aingura altxatzen du, itsaso
eta gauaren erdian sendagailu bila
dabilen errege pozoitua bezain ments.

Argiz kontra, legez kontra
ez dakit zure maitatzen heriorik gabe.

* * *

Zugan ezeza nadila ingururik
gabeko gorputz jarioa moldatzen
didan malgorraz desjabetu nadila
gauzen ukimen irekia zeharkatu
josten gaituen begia hornei lotu
iraz nadila lerra nadila denboraren
arteketarik eror nadila geldirik gabe
zure elur urtuan elur-jausia sutzen
eta loditzen doan bola bat bezala
limurtu nadila zure gorputzetik
mugarik gabe isuri isuri zu ezeztatuz
zugan ezeza nadila: eta aldarrika
ur gaineko amodioaren hatza, bipila.

* * *

Ni bestea naiz. Zu nihaur zara:
urrun aurtiki eta desira eginik
oldarroiti itzultzen zaidan ene zati
hori zaitut, kanta eta hitz.

Desira eginik, kanta eta hitz
begira nagokizu. Ni zuhaur naiz.
Ez naiz ezagutzen: bestea naiz.

* * *

Ettxerik gabeko ene amodioa.
Ettxerik gabeko ene amodioaren itzala.
Ettxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen
duen bala.
Ettxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen
duen bala estaltzen duten hostoak.
Ettxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen
duen bala estaltzen duten hostoak
idokitzen dituen haizea.
Ettxerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen
duen bala estaltzen duten hostoak
idokitzen dituen haizean errotzen

diren ene begiak.

Etixerik gabeko ene amodioaren itzala zeharkatzen duen bala estaltzen duten hostoak idokitzen dituen haizean errotzen diren ene begietan ispilatzen den ene amodioa

* * *

ankerra naiz, eta ahula aldizka,
ene desiratik gerizatzen zaituzten eta
batera nekez hezten diren horma debalde,
txikikoi eta zurrunen aurka
kolpeka nabilenean.

Eta bihotzak, epaile behartua, zehatz gogoz kontra,
zalantzati, badaki zure ahultasuna zurrupatzen
dudalako zorrotasunik ez diezazukedala eska,
are gutxiago urrikirik, bermatzen didazun
desafioaren leze bizia delako, eta hilik dago.

Eta balantzak amodio karats baten
neurri zuzena, zaila markatzen du.

* * *

Ogi karatsa da amodioa garaituarentzat,
herrialde iraitzu baten idorretik legez kontra
iradokia, aurpegiarik gabeko etsaiak
hira gaziaz ereina.

Eta odolak, uztaren ondoko hondarrak
errausten dituen sutearen hazkurri, lastoak
erretzen ditu, legea eta erruak hausten.

* * *

gauza guztia eraberritzen doakion
bere izeneraino galtzen badu amodioak,
jakingo dizut larruarekin eta bestelako
mintzairaren su berriaz errepikatzen.

[zuregatik exilio]

Zuregatik exilio urrun batetik itzultzen naiz,
nehondik ez banentor bezala. Eta aldi berean
sortu lurra zara enetzat, aspaldiko argia,
eta errua haragitzen den lekua.

Itzultzen naiz, zuregatik, ihesi egin
nion eremu itsu ahantzezinerara;
sendagailu gabeko desira, gorputzean
iltzatu, lotu, erro-zauria.

Zuregatik exilio urrun batetik itzultzen naiz,
zure aurka gerizatu naiz, lehen musua
traditzen den lekutik, asperretik,
esku batzuen bilketa hautatzen denetik.

Itzultzen naiz, zuregatik, ordu eta izen
gabeko epaile zaharrera, neure larrua
ezagutzen duten zure bideen larruan urtua,
zure soa sostengatzen ausartzen diren begiz
setiatua jada, nehondik ez banentor bezala.

* * *

amodio hori, hormak
harritzen zituen
mugen erronka zaila:
argi kontrabandoa.

[orratzak]

Orratzak ahazmenaren
hariarekin harilkatzen du.
Dakusadan urrakoa desegiten du,
Uzten dio aurki dezan.
Ukitzen du larru
hila, iruten du,
airea, haragi bizia:
bastatzaileitsuak
memoria josten du.

Valencia d'Aneu

Erroizten,
behera lehiatzen den
hedoi jauzia bezala
isiltasunaren
zeru urtsuaren aurka
altxatzen da
muinoa,
zurrun.

Karga edo
deskarga lekukotasun
zantarra,
galdezkatua, zirikatua,
harrizko mututasunez
baizik ez da
mintzo,
argiz kontra.

Denbora esmaildua
zaticatua
laurdenez txikitua
ematen du
soilik,
denbora zakarkinak,
mailak datatzeko
balio duten
legez kanpoko
txanponak.

Eta deboilaren
alfabeto
ilun bezain
gaizki zenbatua
ebakitzen duen
lotura, kodea,
jakitatea
maskaratzen du
zekenki.

Belarrik eztiaren
itsu irri
gaztearen azpian
zultatzen duen
hitzak
aurki ezin,
memoriaren
lurralde suntsitua.

Galtzea

Sara N.-M.-ri

Lorea elur artean
bezala, bat-batean,
odola, ttaka bat:
Galtzearen ikurrak
herioa ukatzen du.

* * *

*Juntak eta lezeak zulatuz
Oraino tematsu, dragoi zaharra aurkitu nuen.*
Maria-Antonia Salva

Horma idor honen juntak eta
lezeak zulatuz; ahanzturaren harritorik
harrixoenetan; jasan duzun ez-memoria
itsuaren harkaitz artean, badakit zutaz.
Eta zutaz jakiteak lurra ematen dit, erroa.
Eta badakit eta badakit nitaz, zure
poemaren mirail fidelean, isiltasun

uherrezko harrian tematsuki urratua
—emazte sugea, emazte piztia, emazte dragoia,
kaktusa bezala, zu bezala, biziraule.

* * *

Renée Vivien-i

Bi emakume: desiraz
haratagoko itun bat,
alde guztietan eta
nehon ez idatzia.

Bi emakume: batera
sortzeko eta sortarazteko,
izenean eta haragian bizirik.

Itun bat: urrunago,
hemendik eta desiraz.

* * *

Hitzatea dakar
itsasoz
itsaso:
exilioaren exilio.

* * *

Dorrerik gorenaren
—hetsia eta uherra—
urguilutik
erortzen da
ordua
—eta hitza.
Bi tren bezala,
zurubia zabaltzean,
soako itsuaren
alderik alde
bat-batean epaitua.

* * *

1

erraten didazu: hau da
nire gorputza,
nire odola.
Har, jan eta edazu
—bizitza eta hil mihisea.

Gero, ogi
xehatua, labanak
zauritua
eta mahaiko
oihala tatxatuz
isuri ardo gorria.

Hitzak
lapurtu zizkizun
jainko baten so
zantarraren pean.

herioaren promesak
ukituriko
gorputzaren
zantar sakratua:
ezin ukituzkoa
jainko ausente baten
hatza edo
paria bat bezala.

Gorputz bizien
dohain apala
itzul iezaiozu eta
sakrilegio zakizkio.

haragia, hitzen odola
zugandik
etortzen balitzaizkit bezala.

Ama
hiru bider
eta ehunez
ukatu zaitut.
Eta kanpoan ez zegoen
Oilarrik kantari.
Gure traditze itsuak,
elkorrak, mutuak dira.
Eta deboila.

Berdintasuna

Emakumeetarik, semeak eta alabak
Ezberdinak sortzen dira.
Herioak berdintzen ditu.

* * *

Gorputz neurea: zer derasadazu?
Mututasunean hesteraino
orbaindu nahi ez duen
aho zaurituaz mintzo zatzaizkit:
Ahozka ezinezko
hitz bizia.

* * *

Ezer eza dena da: antzinako dolu zahar baten
Memoriaz betetzearen eta beste udaberri
Bati norabidea ematearen
Indarraz zurbil loratzen dira glizinak.

Lizunkeriak

Zu gabe etxeak ez daki nire etxea izaten.
Abere hilaren hilotza bezala
edo denbora lizunaren sabelak
gaizki digeritu bizihatzen uherra bezala.
Horma huts hauei so nago.
Perlek bezala
bizitza ilun eta itsas pekoaz
argitzeko zure haragia eskas dute.
Odol urrun eta haragizko etxe baten
nostalgiaz hazten nauen (...) -kiko
kartzelari bezala so nago horma hauei.

* * *

guztiari
desafio bakar bat bezala
edo ezerezari
odola eta hitza
eta amodioa: jostari
dabiltzan mirailek
eman burtzoroa.

* * *

Koloka zegoen herio zuriaren arrautza
besapean, papoaren ondoan,
eta bularraren ematen zion itsuki
gauaren hegalaen itzalari.

Ez negar egin niretzat ama argi zirrintan.
Ez negar egin niretzat ama, nirekin baino.

Zartatzen zihoan arrosa piztigarria,
oihua zekarren
 hormazko kimu.

Ama, ez niretzat negar egin, ama.
Ez niretzat negar egin ama, nirekin baino.

Zure negarrak nirearekin sarea beza txirikorda,
neure urrats dudakorren azpian
itzalaren beldurraren eskuari loturik
gorputzez tolesten garen
 trapezioan.

Gabeziaren

soberakineraino altxatzen den

zikiratuaren ahotsa bezala.

Jainko baten antzera kristalizatu kantan

odolusten doan galtzetik.

Lehen jainkoa zu, ama.

Berpizte

belaunikatzen naiz

gorputz

zikin

lizun

hilkor

lehen

honen

aitzinean

herri

bizikor

hilkutxa

zabala

natorren lekutik

ez da

ama, beste sortzerik.